



EAJ-EA irabazle, EHAK indartsu

TOLOSALDEA ▶ EAJ-EA koalizioak irabazi eskualdean ere, baina 2001etik ia 3.500 boto galdu ditu aurtengo hauteskundeetan

EHAK ▶ Euskal Herritarrok-ek orain dela lau urte baino 107 boto gehiago bildu ditu; PSE-EE igo egin da, PP eta EB jaitsi ▶ 2-5

ESKUALDEKO EMAITZAK ▶

EAJ-EA ▶ 10.841 boto (- 3.465).

EHAK ▶ 7.014 boto (01ean EHk 6.907).

Aralar ▶ 1.194 boto (01ean ez zegoen).

PSE-EE ▶ 2.439 boto (+ 180).

PP ▶ 1.725 boto (- 1.263).

EB ▶ 1.143 boto (- 133).



EAE-KO EMAITZAK ▶

EAJ-EA ▶ 463.873 boto; 29 legebiltzarkide (-4).

EHAK ▶ 150.188 boto; 9 legebiltzarkide (01ean EHk 7).

Aralar ▶ 28.001 boto; legebiltzarkide 1 (01ean ez zegoen).

PSE-EE ▶ 272.429 boto; 18 legebiltzarkide (+5).

PP ▶ 208.795 boto; 15 legebiltzarkide (-4).

EB ▶ 64.931 boto; 3 legebiltzarkide (=).



Bozkatzen. Tolosan, Emeterio Arrese kaleko gizarte zentroko mahai batean bozka ematen. IMANOL GARCIA



Zenbaketa. Ibarako mahai batean bozka zenbatzen. I.TERRADILLOS



'SAN INAZIO'
MEDIKU ZENTROA

R.P.S 401/04

KONTSULTAK

- Familiako medikuntza
- Oftamologia
- Erreabilitazioa
- Pediatria
- Arma eta gida baimenak

San Inazio, 2 (Muñazabal altzarien ondoan) • TOLOSA
EGUNERO - Tel.: 943 65 41 24



ESKUALDEKO EMAITZAK ▶

EA-EAJ irabazle, 3.500 boto galduz

EHAK indartsu ageri da 7.000 boto lortuz; Aralarrek mila boto; PSE-EEK gora eta PPK behera egin du

HERRIZ HERRI ▶

Herria	EAJ-EA		EHAK	EH	Aralar	PSE-EE		PP		EB		Besteak		Absten.	
	2005	2001				2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001
Abaltzisketa	95	112	54	43	5	1	0	2	5	7	5	0	0	%28,8	%23,6
Aduna	89	132	113	90	21	3	4	0	4	5	21	0	0	%21,6	%10,9
Albiztur	129	149	28	27	9	3	0	2	2	2	1	0	1	%29,7	%23
Alegia	473	637	290	310	54	59	48	46	65	25	41	0	3	%29,7	%18,8
Alkiza	117	135	41	36	5	2	1	1	2	8	4	0	0	%25,1	%17,9
Altzo	91	118	96	83	17	1	0	4	1	3	9	1	0	%24,2	%21,7
Amezketza	276	352	209	202	34	5	7	21	31	20	18	1	0	%30	%26,2
Anoeta	397	555	347	300	45	92	95	66	145	40	35	0	3	%29,4	%17,8
Asteasu	369	432	250	240	36	23	15	21	44	33	20	0	2	%33,3	%23,5
Baliarrain	16	28	37	38	3	1	0	0	1	2	0	0	0	%30,5	%24,4
Belauntza	68	89	69	120	25	3	4	7	4	2	6	0	1	%30,2	%16,3
Berastegi	357	460	149	157	25	12	20	6	18	9	14	1	3	%29,2	%15,9
Berrobi	162	184	101	95	10	13	8	21	29	5	7	0	1	%30,2	%29
Bidegoian	117	187	41	85	5	12	5	1	5	8	3	0	0	%51,1	%16,7
Elduain	63	103	61	51	1	1	0	2	4	0	0	0	0	%26,8	%15,8
Gaztelu	41	58	46	49	1	1	1	0	0	9	0	0	0	%25,2	%16,1
Hernalde	79	96	60	44	17	6	9	5	4	8	9	0	0	%32,8	%31,3
Ibarra	914	1.320	704	702	106	370	358	174	336	118	136	0	6	%33	%19,8
Ikaztegieta	108	158	92	89	12	9	2	6	17	11	8	0	1	%24,6	%12,1
Irura	290	291	186	148	38	48	27	36	38	17	8	0	1	%28,5	%19,9
Larraul	44	44	35	30	2	1	0	1	2	4	0	0	0	%32,8	%34,4
Leaburu	41	115	46	128	1	1	1	0	9	9	7	0	0	%68,4	%15,5
Lizartza	125	187	230	230	14	4	5	8	16	3	1	3	0	%24,5	%15,1
Orendain	58	53	43	36	6	0	0	0	1	1	0	0	0	%22,7	%25,4
Orexa	6	8	64	62	1	0	0	0	0	0	0	2	0	%1,3	%2,7
Tolosa	4.447	6.422	2.309	2.212	503	1.169	1.070	906	1555	580	677	3	68	%31,4	%20,5
Villabona	1.300	1.087	893	821	141	402	348	267	426	150	165	2	11	%31,1	%20,5
Zizurkil	569	790	420	479	57	207	231	122	224	64	81	1	8	%35,4	%22,5

JOXEMI SAIZAR

EA-EAJ koalizioa izan da nagusi Tolosaldean hamar mila botoekin, baina hiru mila eta bostehun boto galduz duela lau urteko bozketekin emaitzen konparatuz, eta EHAK alderdi berria indartsu ageri da zazpi mila boto lortuz. Horiek dira atzoko EAEko hauteskundeetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak eskualdean. Aralar alderdi berriak mila botoen muga gainditu du eta PSE-EEK igoera txiki bat lortu du. PPK izan du jaitsierarik handiena eta IU-EBk ere ehun boto galdu ditu.

EA-EAJ koalizioak jarraitzen du eskualdeko lehen indarra izaten Tolosalde osoan eta 20 herritan. Hala ere, 2001eko emaitzekin konparatuta, lau mila boto galdu ditu. Herri gehienetan galdu du, Villabona eta Orendain izan ezik. Larraulen emaitza berdina izan du.

EHAK, 8 herritan nagusi

EHAK alderdi berria agertzen da indartsu bigarren lekuan Tolosaldean. Eskualdeko zortzi herritan irabazi du: Adunan, Altzon, Baliarrainen, Belauntzan —boto batengatik—, Gaztelun, Leaburun, Lizartzan eta Orexa. Duela lau urte EHk lortu zituen emaitzekin konparatuz, ehun boto gehiago lortu ditu.

Hirugarren lekuan PSE-EE alderdia ageri da. Igoera txiki bat lortu du eskualdean, ia berrehun urte.

PP da laugarren indarra Tolosaldean, mila eta berrehun boto galdu ditu lau urte hauetan, jaitsierarik handiena izanik.

Aralarrek mila boto


Ondoren Aralar alderdi berria ageri da. EAEko hauteskundeetan lehen aldiz aurkeztzen zen eta mila botoen muga gainditu du.

Antzeko emaitza lortu du IU-EBk, seigarren tokian, baina boto batzuk galduz.


Abstentzioa gora

Abstentzioa izan da eguneko beste protagonista. EAE osoan bezala, asko handitu da. 2001ean %20ko abstentzioa izan baldin bazen, atzo %34ra igo zen abstentzioa Tolosaldean.

ESKUALDE MAILAN ▶



ESKUALDEAN ALDERDIEN BOTOAK EAE-KO HAUTESKUNDEETAN ▶



*EAJ-EA: 1986, 1990, 1994 eta 1998an EA bere kasa aurkeztu zen. *HB-EH: 1998 eta 2001ean EH aurkeztu zen. *PSE-EE: 1980, 1984, 1986 eta 1990an EE bere kasa aurkeztu zen. *PP: 1986a arte AP.



DATUA ▶ ESKUALDEKO LAU LEgebiltzarkide GASTEIZEN

Bakartxo Tejeria (EAJ). Billabonatarra. 34 urte. Alkatea. Legebiltzarkidea azken legealdian. Zuzenbidean lizentziatua.
Rafa Uribarren (EAJ). Arrasatearra. 52 urte. Anoetan bizi da aspalditik. Albaitaria. Legebiltzarkide 10 urtez.
Onintza Lasa (EA). Tolosarra.

32 urte. Legebiltzarkidea azken legealdian. EAKo komunikazio idazkaria eta zinegotzia. Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziatua.
Antton Karrera (EB). Amezketarra. 61 urte. Tolosan bizi da. Legebiltzarkidea. IU-EBren Gipuzkoako koordinatzailea.



Bakartxo Tejeria. HITZA



Rafa Uribarren. A.IPINTZA



Onintza Lasa. I.GARCIA



Antton Karrera. HITZA



Botoak zenbatzen Villabonako mahaietan. I.GARCIA

HERRIETAKO GUNEETAKO EMAITZAK ▶ *

TOLOSA ▶

Gunea	EAJ-EA	EHAk	Aralar	PSE-EE	PP	EB	Best.	Abs.
Alde Zaharra, Belate	882	599	125	285	199	157	17	%35
Landa auzoak (San Esteban, Olarrain, Urkizu, Montesku, Aldaba, Bedaio)	298	184	17	61	28	12	2	%37
Erdialdea	1.502	540	151	322	409	183	9	%26
Berazubi, lurre, lurreamendi	551	245	58	168	66	59	7	%30
Amaroz, Usabal	317	286	51	109	45	32	5	%34
Izaskun eta ingurua	514	267	68	116	107	50	7	%32
Arramele, Santa Luzia	383	188	32	108	56	77	4	%33

IBARRA ▶

Gunea	EAJ-EA	EHAk	Aralar	PSE-EE	PP	EB	Best.	Abs.
Euskal Herria (bakoitiak), Gaiarre, Guridi, Argindegi	342	319	47	168	66	36	-	%33
Ibaiaren ezkerrekoa: Azkue, plaza, San Inazio, Zaldune, Apatta-errika	308	220	32	129	64	40	3	%32
Ibaiaren eskubialdea: E. Herria (bakoitiak), Uzturre, Idoiaga, Ibai gain, Beko bide	264	165	27	73	44	42	-	%36

VILLABONA ▶

Gunea	EAJ-EA	EHAk	Aralar	PSE-EE	PP	EB	Best.	Abs.
Arroa, Errota, Legarreta, Nagusia, Berria (bakoitiak), Santiago	508	372	34	144	91	46	6	%30
Larrea, Etxeondo, Oriamendi	351	253	41	175	102	46	12	%32
Amasa, Agaraitz, Otelarre, Otsabi, Altzin, Erniohea, Berria (bakoitiak), Txermin	441	268	66	83	74	58	2	%32

ZIZURKIL ▶


Gunea	EAJ-EA	EHAk	Aralar	PSE-EE	PP	EB	Best.	Abs.
Asteasu eta Adunako errepideetatik gora (Zizurkil goia)	389	319	45	81	52	34	2	%32
Errepideetatik behera (Elbarrena)	180	101	12	126	70	30	6	%41

* beste herrietan botoa emateko gune bakarra dago

EAJ-EA irabazle, baina lehen baino babes gehiago beharko ditu gobernu sendoa osatzeko

EHAk giltza bihurtu da (9 jarleku), EAJ-EAk eta EBk, Aralarrekin bat eginda ere, 33 lituzketelako, PSE-EEK eta PPK bezala

EAE ▶ EMAITZAK



ERREDAKZIOA

Emaitzetan ezuste handirik gabeko hauteskundeak izan ziren atzokoak: EAJ-EA irabazle baina gehiengo osotik urruti (29 legebiltzarkide, lau gutxiago), indar konstituzionalisten artean PSE-EE PPren aurretik

oraingoan, EHAkren estreinaldi garrantzitsua eta indartsua (9 ordezkari), EB lehen bezala, Aralarrek legebiltzarkide bat (Gipuzkoatik), eta parte-hartzea 2001ean baino txikiagoa.

Baina aliantzetan egongo da hemendik aurrera benetako jokoak. Izan ere, orain arteko hi-

rukoak (EAJ-EA, EB) 32 jarleku ditu orain, eta Aralarrekin bat egingo balu ere, PSE-EEK eta PPK adina lituzke: 33. Hor, ikusi egin beharko Patxi Lopez sozialistak lehendakaritzarako kandidatura aurkezten duen eta PPK babesten duen. EHAk giltza bihurtu da.

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiria: Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, BECO enpresa, kudeatzailea, denda, jatetxe... eta era guztietako enbata baino gehiagok euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!

902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza



ERREAKZIOAK ▶



Villabonan Olaederra kiroldegian kokatu ziren mahai guztiak. I. GARCIA



EAJkoak batzokian. I. ETXEBESTE



EAKoak Alkartebxean. I. ETXEBESTE



Intxurre tabernan Batasunako kideak elkartu ziren. J. ASTIBIA

PP

«Oso kontent gaude lortutako emaitzekin»

«Oso kontent gaude hauteskunde hauetako emaitzekin, denek galtzailatzat jotzen bagintuzten ere. Terrorismoaren aurkako gure borroka martxan jarriko dugu.»

EB

«Aurreko legealdiko emaitzei heldu diegu»

«Aurreko legealdiko emaitzei heldu diegu eta EB gogor mantentzen dela erakutsi dute gaurko emaitzek. Gu izango gara gako garrantzitsua. Berriro ere alderdien legeak ez duela batere balio erakutsi da eta Batasunak nabarmen egin du gora.»

EHAK

«Aro demokratiko bat eratzea dugu helburu»

«Kanpaina oso gogorra izan da baina emaitza oso onak lortu ditugu. Gure helburua legebiltzar demokratikoa eratzea izango da.»

ARALAR

«Herriari zuzenduko gara gaurtik aurrera»

«Gure helburua bete dugu, Gasteizko Legebiltzarrean egongo gara, eta hemendik aurrera herriari zuzenduko zaio Aralar. Gure aukera Aralarren mezua herriari zabaltzea da eta eserleku horri esker lortuko dugu. Aurrera pausu garrantzitsua lortu dugu gaurko hauteskundeetan. Eskuak zabalik ditugu lanean kolaboratzeke.»

«Aztertzeko» emaitzak dira

Lortutako emaitzen irakurketa egin diete alderdien ordezkariak HITZARI

ERREDAKZIOA

Behin Eusko Legebiltzarreko eserleku guztien banaketa burututa, alderdi bakoitzak bere balorazioa egin dio HITZARI.

BAKARTXO TEJERIA

EAJ

«Ondo aztertu behar da egoera lanean hasteko»

«Gutxienez gehiengo abertzalea mantentzea Legebiltzarrean lortu da hauteskunde hauetan. Gure kasuan abstentzioak

kalte egin digula argi dago eta honek orain dela lau urte baino bozka gutxiago lortzea eta ondorioz eserleku gutxiago eragin du. Egoera ondo aztertu beharko dugu bihurtik aurrerako lanari ekin aurretik betiere.»

ANTTON IZAGIRRE

BATUSUNA

«Ilegalizazioaren aurka egingo dugu lan»

«EHAKren emaitza oso positiboki baloratzen dugu. Botoak

bakearen alde eta ilegalizazioaren aurka lan egiteko erabiliko dira.»

ONINTZA LASA

EA

«Konpromisoak betetzeko gai gara»

«Koalizioaren indarra azpimarratuko nuke. Konpromisoak betetzeko gai gara, eta jendeak konfiantza erakutsi du guran. Aurrera jarraitzeko indarra badugu.»

OSCAR RENEDO

PSE-EE

«Herria ekarriko dugun aldaketaz jabetu da»

«Emaitzak oso onak izan dira guretzat. Euskal herritarrek gurekin aldaketa bat etorriko dela ulertu dute. Koalizioak gehiengo galdu du eta honek egoera aldatzen du; orain dena oso irekia dago. Tolosaldean ere aurreko hauteskundeetan PSE-EEK izan zuen igoera ziurtatu da eta alderdi indartsuan bilakatu gara.»

milaka lagunen egunkaria da

HITZA

jasotzeko eman izena

943 30 43 46

harpidedunen arreta zenbakia

edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko
(astelehenetik ostiralera goizeko 8:30etik gaueko 20:30era
larunbatean, 9:00etatik 13:00etara)



KRONIKA ▶

Boto eskubidea izatea ez baita aski

Gurpildun aulkian bozkatzera joandako Mikela Amenabarrek egin du HITZAK bere ibilbidea




Botoa ematen. Mikela Amenabarrek nekez eman ahal izan zuen botoa atzo Tolosan. I. ETXEBESTE

IRATXE ETXEBESTE

Iurreamendin bizi da Mikela Amenabarro. Amezketako Ugarte auzoan jaioa da, eta azken urteotan Tolosako adinekoen egoitza horretan dago. Hori dela eta, Tolosan ematen du botoa hauteskundeetan. 90 urtera iristeko ez zaio asko gertatzen, eta bada denbora bat batetik bestera joateko gurpildun aulkia behar duela.

2005eko apirilaren 17a. Goizeko hamaiketarako minutu gutxi batzuk faltan. Bere senitatekoen bisita izan du gaur Mikela. Bere anai Joxe Krutzek ere bai. Ilobak, eta iloben seme bat ere joan zaizkie, sarritan egiten duten moduan. «Joango al gara botoa ematera?», galdegin diote. Duda egin du hasieran, baina badaki kalera ateraz gero hamaiketako *eroriko* dela. Usadio da, izan ere, hauteskunde egunez senitatekoekin gustuko tabernara hamaiketako egitera joatea.

Albiste txarra izan dute gaur adinekoen egoitzan, eta burumakur dira egotzilarak. Laguntako batek hala esaten dio Mikelari: «Zoaz, ondo egingo dizu eta! Gainera, hemen egoteko arratsalde osoa duzu». Ez du zalantza luza irauten. Egoitzako sarreran egoten den emakumezkoari Mikela kanpora ateratzeko baimena eskatu, eta abiatu dira denak Berazubi aldera. Bi auto behar dira Mikela eta Joxe Krutz hara eramateko. Azken hori moldatzen da bere kabuz, baina adinean aurrera doa bera ere. Euriak ez



Iurreamendin. Mikela eta Joxe Krutz Amenabarro, etxean. I. ETXEBESTE

du une bakar batean ere atse den hartzen.

Eguerdiko hamabietan heldu dira Laskorain ikastolako egoitzaren aurrealdera. Lau lagunen artean ateratzen dute Mikela autotik. Tankera hartu diogu, mugimendu hori gogorra dela berarentzat. Bere begiek salatu egiten dute, halabeharrez. Ez da kexu, hala ere. Elbarriekin —eta, agian, haurrekin ere bai— pentsatuta arlanpa bat jarri dute eraikinare atzeko aldean. Bozkatzeko gelara iristeko zeharkatu behar den atetik, baina, ez da gurpildun aulkia sartzen.

Tira egiten diote senideek aulkian, eta gela horretan dauken dozenaka pertsonatik bakar batek ere ez du laguntzeko keinurik egiten. «Zabalduko al duzu atearen beste alde; ezinean gaudela ez al duzue ikusten?», esaten diete senideek, amorruz, bertan direnei, bozketa gela zaintzapean duen udaltzainari, tartean.

«Ez dakit zabaltzen», erantzun die hark. Eta ez da bere lekutik mugitu ere egin ia. Mikelaren atzetik beste bozkatzailerik dator; gurpildun aulkian dago baita ere. Haren laguntzaileak egin behar izan ditu azkenean ditxosozko atea zabaltzekoak. Erramintaren bat atera du nonbaitetik. Listo. Orain badu Mikelak bozkatzeko aukera.

Datozen hauteskundeotan birritan pentsatuko du, ziurtenik, kalera ateratze hori. Asturnegia da lana, eta ordainetan jasotakoak ez du batera onetik. Alderdi bateko eta beste ko politikoak hauteskunde egunez iurreamendi egoitzan ikustea ez da arraroa. Boto eskubidea jautziona dela dioten horiek. Eskubidea izatea ez da, baina, aski kasu batzuetan. Atzokoa ez zen, akaso, haien erantzukizuna izango, laguntza behar duenari laguntza ematea izatera kontua baita. Sentsibilizazio lana, baina, haiena ere bada.



ZORIONAK EUSKALHERRIA

DIRU LAGUNTZA AYUDA ECONOMICA 3035 0083 20 0830096411 Euskadiko Kutxa / Caja Laboral Euskadiko Kutxa / Caja Laboral Euskadiko Kutxa / Caja Laboral 3035 0083 20 0830096411

ERAKUSKETA ▶

Azpillaga: «Pintatzea bizitzea da»

Mikel Azpillagaren margolanak ikusgai dira egunotan Aranburu Jauregian

LEIRE MONTES

«Pintatzea bizitzea da». Esaldi hori abiapuntutzat hartuta begiratu dio errealitateari Mikel Azpillaga margolariak (Donostia, 1952). Kronistaren izatera hartuta ematen die forma bere lanei. Orain, istoriotxo horiek Aranburu Jauregiko hormetan daude zintzilik.

2003an eta 2004an egindako lanak ekarri ditu margolari donostiarrak Tolosara. Olio mihisean egindakoak dira guztiak, eta forma eta gai anitzak jorratu ditu. Gehienak, baina, pintorearen beraren bizitzari lotuta daude: pintzel kolpeek, uneez eta oroitzapenek osatzen du-

ten biografia dira, memoria pertsonalaren kartografia bihurtuta. Lanaren aurrean jartzen denean duen jarrera, margotzeko jarrera, munduaren aurrean duen sentimendua da.

Artemis Olaizola adituak hiru begirada nabarmentzen ditu Azpillagaren azken lanetan: «Esenografikoari lehen-tasuna ematen dionarena, batetik; erretratuetan barne errealitateak hain ondo islatzen dituen miatzailearena, bestetik; eta, azkenik, kronistaren ikuspuntutik errealitatearen ikuspegi objektiboagoa ematen diguna, naturalistagoa».

Obra batzuetan mundu simbolikoaren, magikoaren eta misterioaren aldera jotzen du margolariak; horrela, elementu surrealista erabiltzen ditu. Hori da, esaterako, artifizialki sortutako paisaien kasua. Erretratu batzuetan, bestalde, estilo espresionista nabaria da, eta deformazioa garbi ikus daiteke. Beste askotan, ordea, artisauaren papera jokatu du Azpillagak.

Olaizolaren esanetan, «austeritate eta kolore zaharrak forma alai eta koloretsuen gainetik daude». Izan ere, malenkoniak betetako irudiak dira Aranburun ikus daitezkeenak, nostalgiatik eta oroitzapenetik sortutakoak.

Autodidakta da donostiarra, marrazkigilea eta kartelgilea. Artea «bizi nahi balitz bezala» ulertzen du. «Barren-barre-tik eta egunerokotasunarenganako zaletasunetik» praktikatzen du artea.

«Bizitzea denbora da», dio Azpillagak. Eta hala adierazi nahi du bere margolanetan. Pinturen polifonia da, elkarriketa emankorra.

Mundu intimista horretatik egindako bidaian bidelagun izan nahi duenak Aranburu Jauregira joan besterik ez du. Izan ere, hilaren 23a arte, larunbata, izango da ikusgai Mikel Azpillagaren pintura erakusketa. Asteartetik larunbatera bisita daiteke —astelehen eta jaiegunetan itxita dago erakustokia—, 17:30etik 20:30era bitarte.



Malenkonia. Malenkoniak beteriko irudiak jarri ditu zintzilik Mikel Azpillagak Aranburu Jauregiko hormetan; nostalgiatik eta oroitzapenetik sortutako lanak dira. HITZA



Formak, gaiak, estiloak... Forma, gai eta estilo anitzak erabiltzen ditu. Surrealismora jotzen du, bestetan artisauaren papera jokatzeko, eta erretratu batzuetan surrealismoa nabaria da. HITZA



Biografia. Biografia modukoak dira donostiarraren pinturak, memoria pertsonalaren isla; gai asko jorratzen ditu, baina gehienak pintorearen beraren bizitzari lotuta daude. HITZA

ERAKUSKETAK ▶



Mikel Azpillaga. NOELIA LATABURU

1986. Donostian, Alboka tabernan.

1988. Donostian, Mikel jatebean.

1990. Lizarran, Larrion bentan.

1992. Donostian, La Colchonerian.

1993. Bilbon, Gasteizen eta Donostian. *Imaginate Euskadi*.

1995. Donostian, Loiolako Kultur Etxean eta Galeria 90n.

1996. Donostian, La Colchonerian.

2001. Iruñean, Txantreako Kultur Etxean; Hernanin, Txema tabernan; eta Donostian, Loiolako Kultur Etxean eta La Colchonerian.

2003. Donostian, Art Cafen.

2005. Tolosan, Aranburu Jauregian.



Elkarrizketa. «Pinturen polifonia» egiten du, etengabeko elkarrizketa emankorra. Haren esanetan, «bizitzea denbora da». «Barren-barre-tik eta egunerokotasunarenganako zaletasunetik» praktikatzen du pintura Mikel Azpillagak. Pintatzea bizitzea da harentzat. HITZA



Tokaren txanda izan zen atzokoan

IBARRA ▶ Herenegun eman zitzaion hasiera Hauspoa kultur elkarteak antolatutako Ibarako XII. Olinpiada Txikiari. Karta jokoak izan ziren nagusi lehenengo egunean, eta atzo, berriz, toka eta boloak. Azken honen kasuan eguraldi txarra dela-eta atzeratu egin beharra izan dute, beraz, datorren larunbatean Gazte Asanbladakoek prestatutako dituzten jokoekin batera ariko dira boloetan. Tokan, ordea aritu ziren eta herritar dezentze gerturatu zen Emeterio Arrese parkera parte-hartzaileek nola jaurtitzen zuten ikustera. I.TERRADILLOS

Mus Txapelketa Gaztetxean

IBARRA ▶ Ibarako Formakuntza eta Eraldaketarako Bilguneak antolatu duen Apirila Gorria izeneko ekimenak aurrera darrai. Aste honetan Maite Seguroiak eskainita *Feminismoaren ekarpenak marxismoan* izan zen entzungai Gaztetxean. Eta atzo, berriz, mus txapelketa antolatu zuten. 15 bikotek hartu zuten parte. Arkumea, gazta eta 4 ardo botila irabazi zituen lehenengoek, 5 txuleta eta 3 ardo botila bigarrenek eta 2 baserriko oilasko eta 2 ardo botila hirugarren sailkatu zirenek. I.TERRADILLOS

TOLOSA ▶ KIROLA

‘Nahi baina ezin’, horixe Oiartzunen aurka jokaturako partiduen izana

Azkenik, partidua banako berdinketaz bukatzea lortu du, ordea, Tolosak

JAIONE ASTIBIA

Herenegun arratsaldean Oiartzunen aurka, han, jokatu zuen partidua ez ziren batere konforme gelditu tolosarrak: azken emaitza banako markagailuarekin bukatu bazen ere, joko aldetik ez omen zuten eta lanean asmatu.

«Nahi eta ezin, horixe gertatu zitzaigun atzokoan [larunbatean]», zioten taldearen beraren arduradunek. Oiartzuarrak erasora atera omen ziren partidua hasiera-hasieratik, eta mendean hartu zituzten. Hitzari atzo adierazi ziotenez, Tolosak ez omen zuten jokoan sartzen asmatzen: «Presiogatik edo, ez dakigu zergatik, baina ez genuen ezer egiten asmatzen. Normalean, gol-aukerak sortzen ditugu, baina larunbatean hori ere ez. Oso gaizki jokatu genuen», zioten herenegun ezintasun hura ezin azalduz.

Kontuak kontu, azkenean partidua amaierako emaitzak agintzen du puntuak gehitzeko orduan eta, ibili eta buelta, azkenik partidua banako emaitzarekin bukatu zenez, puntu bat behinik behin, etxeratu zu-

ten Tolosako jokalariek. Oiartzuarrak partidua hasi eta 10. minuturako Apeztexearen atea arriskuan jarria zuten. 24.ean, ordea, erdiz-erdi asmatu eta 1-0koa sartu zuten. Larreak buruz egindako tanto polita izan zen hau, ondorioz markagailuan aurretik jarri zirelarik.

Horrela, lehen aitaturako adierazpenen arabera, joko handirik sortzen asmatu gabe, partidua berehala bukatuko zen beldur ziren garaian, eta jada, bertako zaletuak ere partiduen amaiera eskatzen ari zirelarik, 92. minutua baitzen, deskontuko garaietan ongi sartuta, beraz, etorri zen berdinketa eskuratzeko balio zuen Tolosa taldearen gola: kontraerasoan hasita, Oiartzungo atezainarekin aurrez aurre bakarrik gelditu eta hau erori zelarik, Doiartzabalek, sareetara bidalita eskuratutako tantoa etorri zitzaion. Guztiz baliagarria, «gutxienez puntu bat bederen etxeratzeko balio izan baitzuen», zioten.


Talde bakoitzak partiduan zehar launa jokalaria-aldaketa egin zituen. Arbitraia, berriz, txukuna izan omen zen.

50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

Aprilaren 24tik aurrera
egunero ibilbide bat DOAN BERRIarekin



Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko apirilaren 18a, astelehena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Adina, Abatzen, Alegia, Alkiza, Alzo, Arredeta,
Arorta, Anso, Balamán, Belauntza, Berastegi, Berrozi, Estuan, Hernialde,
Ibarra, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo,
Zuzen Besterik: Leitzaldeko Euskararen Bateria

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

EU

Eusko
Jaurjaritza,
Kultura Salla

EURO

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldeaz



beroena **13**

hotzena **10**

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldeaz



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. Joseba Ramirezek *Bakartxoren zapatilak* ipuina kontatuko du txobongiloen bidez bihar 17:00etan Ertoixen. 3-11 urte arteko haurrentzat.
Elduain. Saioa Lasak *Bakarbitza eta elkarbizitza aukerak* hitzaldia emango du Urdelar biltokian bihar 17:00etan.
Tolosa. Odol ematea Kultur Etxean 18:30etik 20:30era.
Zizurkil. Txalo Produzioen *Xomorroak* antzezlanaren Abulondo kultur etxean 15:30ean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Luis Mari Nuñez. Koadroak. Jubilatuen tabernan.
Belauntza. Iñaki Edroso. Argazkiak. Kultur Etxea.
Hernalde. Merxe Etxeberriaren olio-pinturak Ostatu tabernan.
Tolosa. Mikel Azpillaga. Pinturak. Aranburu Jauregian.
Tolosa. Aitor Ruiz de Egino. Eskulturak. Aranburun.
Tolosa. Kubako ikasleak. Pinturak. Lanbroa tabernan.
Tolosa. Ana J. Ansorena. Zeramikak. Saikin tabernan.
Tolosa. Kubako pintorearen koadroak. Fronton kafetegia.
Tolosa. Jose Antonio Gorgojo. Pinturak. Sorrón.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria 3. 943 67 09 15.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga 7. 112

ZINEMA

Tolosa. *Million dolar baby.* 19:30ean eta 22:30ean Leidor zineman.

Euripeko omenaldi sentitua

TOLOSA ▶ Bulnesko Naranco eskalatzaren hil ziren Ramon Ortiz tolosarra eta Patxi Berrio donostiarra gogoratu zituzten lagunek eta senitartekoez Uzturren



Bi mendizaleen senitarteko eta lagun batzuk buzoiairen aurrean bistu doinuak entzuten euripean. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Ez zuten eguraldiarekin zorte handirik izan, baina ez ziren beldurtu eta pentsatuta bezala burutu zuten omenaldia Ramon Ortiz eta Patxi Berrio mendizaleen lagunek, senideek eta Oargikoez.

Lehendabizi meza egin zuten Izaskungo ermitan duela 36 urte Bulnesko Naranco (Pico Urriello) eskalatzaren hil zirenak gogoratze eta ondoren Uzturreko buzoira igo —bere gustuko lekua, bertsoak dioenez— eta buzoia berria inauguratu zuten. Etxe baten

itxura du buzoiak, bi mendizaleen argazkiak, Ramon Ortizen ilobak sortutako bertsoa eta hil ziren eguna —1969ko urtarrilak 30— dauzka. Ekitaldi xumea, baina sentikorra izan zen: lagun baten hitzak, txistuaren *Agur Jaunak*, mendizaleen betiko kantuak eta lore sorta se-

nitartekoei. Mokadutxoa ere izan zuten Uzturreko txabolan, bertan denbora asko pasatze-ko eguraldirik ez zegoen eta.

Nortasun handikoak

Nortasun handiko bi eskalatzailerik ziren Ramon Ortiz tolosarra —Oargi mendiko elkarteko lehendakaria— eta Patxi Berrio donostiarra —Alpino Uzturre elkarteko kidea—. Mendizale giro handia zegoen 60. hamarkadan Tolosan eta hildako bi mendizaleak ordezkaritza aurreratuak ziren, eskiatzen, eskalatzeko, mendian...

Bulnesko Naranjoren mendaldeko horma ikusgarri eta mitikoa eskalatzera abiatu ziren Asturiasera 1969ko urtarrilaren 28an, Berriok Ortizi hala proposatuta. Isil-isilik, lagunei ere ia ezer esan gabe. 1962an eskalatu zuten lehen aldiz Rabadak eta Navarrok. Neguan eskalatzera inor ez zen ausartu ordu arte. Hurrengo egunean Urrielloko aterpeira iritsi ziren. 30ean 08:30ean abiatu ziren goraka. Eguraldiak ez zien lagundu eta tontorretik metro gutxitarata egurrezko tako bat libratuta erori eta hil ziren bi mendizaleak.

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

hitza *lagunen*
txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **ARANDIA** **jatetxean 4 lagunentzako bazkari edo afari eder bat** zozketatuko dugu

ARANDIA
JATETXEA
Telf. 943 65 22 62 **ALTZO**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero